

Erlisioe paganoak eskualde hauietan

Erromanoak hemen nausi zaudelarik

Aditzale jaunak,

Harrituak bide zaudezte zertarat etorri naizen hunat. Bainan jakizue nihaur naizela denetarik harrituena.

Ene adixkide Don Jose Maria Satrustegiuk halako egun batez zintzurretik bezala hartu nau, behar nuela Aralar-eko biltzar huntarat etorri eta mintzatu.

Ni? Mintzatu? Zertaz bada?

Erantzun zautan: «Lehen, ikerketak egin ditutzu Pyrénées Atlantike-tako sineste zaharrez. Ez zaitzu biziki gostako zerbaite erraitea gai hortaz...»

Nik berriz: «Bainan, adixkidea, ez ote da denbora galtzea zaharkeria hoietan murgiltzea, apez lagunek bilatzen dutelarik nola egungo egunean gure fede krixtauari arimetarako bideak urra eta zabal?»

Ihardetsi daut: «Oraiko kanbiamendu handieri buru egiteko, denek on dugu konturatzea, lehenago ere izan direla aldakuntza ez ttipiak, eta Jainkoak ederki baliatu dituela arimen onetan!»

Orduan ihardoki diot gai izigarri luzea emaiten zautala eta ene indarrez goitikoa. Harek amorrik ez, baizik-eta Don Joxemiel Barandiaran-ek hartuko zuela zatirik zailena: harpetako eta harri-aroko gure aintzinekoen erlisioea, ene gain utziz erromanoen aldiko paganokeriak.

Egun goizean entzun duzue Don Joxemiel, doi-doia paper mutur bat gidari, berrogoi mila urtetan barna ibilki, errexki eta nasaiki aipatzen zauzularik orduko gizonen bizi-moldeak, bainan heien sinesmenak xuhurki bezain xuhurki. Orok miretsi dugu haren euskara bakuna, eta miretsiago haren jakitate zabal sakona.

Horrelako jakintzarik ez izanez ene buruan, jo egin dut iturburu askotara. Beihalakoa bezala, ni ere «doctus cum libro».

Irakurri dut Victor Carrière-n *Introduction aux études d'histoire ecclésiastique locale* (Paris, 1932) eta hartan ximenki Georges Drioux-en *La pré-histoire des diocèses de France* (pp. 10-30). Gero hurbildik miatu dut Don Joxemiel Barandiaran-en *Diccionario ilustrado de Mitología vasca* (Bilbao, 1972). Haren osatzeko, berrikertu ditut Greziako eta Erromako pantheon-

PIERRE LAFITTE

ri buruz Seignobos, Commelin eta Schmidt-en erranak. Bide nabar baliatu dut Joseph Goetz-en *Religions des Primitifs* (Paris, 1952). Berdin behako bat eman deiet Dubarat, Haristoy, Estornes Lasa eta Caro Baroja ixtoriozaleen laneri. Bainan gain-gainetik argitu nau *Histoire de l'Aquitaine* (Toulouse, 1971) dalako liburuak, hartan aurkitu baitut Robert Etienne Erromazale bikainaren artikulu pare bat aberatsa (pp. 65-128).

* * *

Horiek hola, orok badakizue gure asaba euskaldunek ez zutela izkiriartzeko gogo handirik. Harri batzuetan utzi dituzten hitz eta lerro bakanak ere ezin irakur ditzazkegu heien alfabetoa ez ezagutuz. Heien berri jakitekotz, arrotzen liburu edo bertzelako idazkieri behar deiegu argia galdegin, batez ere pagano aroaz zerbait onik ateratzekotan.

Beharrik, orduko erlisioneri buruz badira gutienetik 164 epigrafia, orroit-harritan zizelatuak, han-hemenka Akitania eta Tarrakon eskualde zaharretan heien lekuko gelditurik. Harrizko idazki hoietan 15 bat baizik ez dira keltiko usain zerbait dutenik. Ikus *Corpus inscriptionum latinarum*, ahantzi gabe Wuilleumier, Sacaze, Lizop eta Esperandieu ikertzaleen lanak. Orok finkatzen dute Zezarrek *De bello gallico* bere liburuaren hasieran ziona, baizik-eta hizkuntzaz elgar aditzen zutela Akitaniako eta Iberia iparrekotz jendeak: euskara bilakatu den mintzaire bat bazerabilaten, Atlantika-Pyrenetako bi aldetarik frango urrun.

Epigrafiek, bertzeak bertze, erakusten daukute Erromako jainko-jainkosak sartu zirela aurkintza horietan, ez bakarrik hiri erromanotuetan, bainan hala-hala laborarien eta menditarren artean.

Hasteko, Kapitulioko hiru nausi handiak (Jupiter, Juno eta Minerba) orotan ohoratuak ziren, ez bazuten ere baitezpada atxikitzen, gero erranen dugun bezala, Erromako beren gradua.

Bainan Italian jainko-jainkosak ehunka konda zitazkelarik, heietarik hainitz eskas dira orroit-harrietan, eta zonbaitzu ez dira izendatuak toki bakar batzuetan baizik: adibidez Xilben-ek Comminge-tik kanpo ez du arrasorik utzi, eta bertzalde eskualde hortan ongi-etorri berezia egin deete Erroman Ekaldetik sartu berri erlisioneri.

Edozoin izan ziten, jainko zaintzale edo begiraleak bazter gehienetan on-hartuak ziren; eta *ex-voto* direlakoetan aurkitzen diren eskaintzale izenek salatzen daukute, babesleen ohoratazetan bazirela segurki erromanoak, bainan berdin tokian tokiko jende asko: handi ala xehe, gatibu ala esklabo askatu. Funtsean, erlisioneak, eskasak eskastei, mail guzietako arimak hein batean elgarretaritzen zituen, klase-borrokarik gabe.

Inperadoreen ganako deboziona ere orotarat zabaldua zen, bainan, Comminge-n salbu, nehun ere ez zen, aduriz, heien adoratzeko biltokirik. Hargatik gaztelu edo jauregi-ondarkin batzuetan atxeman dituzte Klaudio eta bizpahiru Antoninori buruz eraiki aldaretxoak, etxekoz-etxeko goresten baitzituzketen.

Bizkitartean Akitanoek ez Tarrakondarrek ez zituzten ez arbiatu ez ahantzi beren aspaldiko jainko zaharrak. Bainan zombait bederen Erromanoek ekarriekin kideku eta berdindu zituzten. Erran behar dugu, ordainez, nausi arrotzek errespetatzen zituztela tokian tokiko ohidurak, eta on-hartzzen ere zutela, egin zadin zerbait hautsi-mautsi berenekin. *Interpretatio romana* alde batetik, *interpretatio aquitana edo pyrenæica* bertetik, heldu izan ziren jainko doble batzuen sortzerat, jainko baten izen latinari, herriko bertze bat eratzikitzen zitzaiola ¹. Hala nola:

Jupiter-Beissirisse,
Hercules-Toliaudoss,
Mars-Leherenn,
Mars-Sutigi,
Mars-Lehlunn,
Mars-Dahus,
Mars-Arixo.

(Artetik erraiteko, azken bortz izenek erakusten dute zer arrakesta handia zukeen Mars-ek Garonatik hunaindian.)

Bertzalde, segur baino segurago da, latinezko hitz batzuek estaltzen eta jaunzten zituztela hemen gaindiko jeinuak: *Fagus* (pagoa), *Robor* (haritza) *Sex arbores* (sei zuhaitzak), *Montes* (mendiak), *Sol* (iguzkia), *Fontes* (iturriak), *venti* (haizeak), *Nymphae* (amilamiak).

Alabainan *pagoa* ohoratua zen gure asaben denboran. Izen batzu baditugu lekuko: Pagobakotxa, Pago bedeinkatua, Bagabürü, Bagargi, eta abar, Bertze arbola asko ere saindutat zauzkaten; hala nola *leizarra*, *urkia*, *haritza* (orroit, bertzeak bertze, Gernikako arbolaz eta Malato arbolaz); ez ahantz, bazterretan toki batzuek *luku* edo *lukuze* deitzen direla, erran nahi baita «oihan sakratu».

Haizeri ere, batez ere *Hegoari*, gure zaharrek nortasun zerbait emaiten zeieten, ziotelarik adibidez: «Hegoa xahakoa bizkarrean ibilki», edo: «hegoari ez erran ehoa, "ehoa" erraileari makurra baitaroa!»

¹ Erromanoek aspaldiko ohidura zuten *contaminatio* edo *reductio* mota hori. Grezia-ko erlisionea ezagutu zutelarik, biez bat egin zituzten: *Jupiter* eta *Zeus*, *Merkurio* eta *Hermes*, *Minerba*, eta *Athena*, *Venus* eta *Aphrodites*, *Saturno* eta *Kronos*, eta bertze zombat ez ?

Alta *Iturrien* kondua ongi ezagutua da, hura ere: gure orainoko hainitz erromeria edo beila, lehenagoko ur onen inguruetan iragaiten zaizkigu, Elizaren baimenarekin edo baimenik gabe. Gogoan ditugu Bidarteko, Jatsu-Salbatoreko, Heletako, Uharte-hiriko, Orreagako iturri sailduak. Zonbait segurik paganoek ohoratzen zituztenak dira, eta geroztik guti edo aski krixtatuak.

Ez dugu zeren uka ere, aspaldi-aspalditik (don Joxemielek goizean errana) begi emaiten zeila Euskaldunak *Iguzki* amandreari bai eta *Ilargi* amandreari, eta bere otoitzetan aipatzen zituela, girixtinotu-eta ere ez baitzitzaizkon ahanzten ahal: ikus, gai berezi horri buruz, Satrustegik, Aita Donostiak eta Azkuek bildu dituzten «otoitz ttipiak».

Horiek hola, epigrafia zaharrek erakusten daukute Akitanian biez bat eginikako jainkoez bertzalde, lekuan lekuko zonbait jeinu aurki zitazkela latinaren erronka berean. Gisa hortan *Diana*-ren kideko atxeman zitazken *Gar* eta *Horolat*; *Merkurio*, *Herkules* eta *Mars*-en lehen auzo, *Sirona*; *Apolon*-en lagun *Adarduna*; *Merkurio*-ren espos *Rosmerta*.

Bertzalde ohargarri da, gure lurretan birlandatu-eta, Erromako jainkoek Italian ez bezalako itxurak hartu zituztela.

Jupiter-ek, adibidez, zizalki edo bultuetan, errota bat bazekarren bezazpian edo papoan; sugeak emaiten ziozkaten ile-adatsan edo gorputza egiten erdi-gizon, erdi-suge.

Merkurio itxuratzen zuten batean lau bururekin, bertzean adar-bakardun, hor bizardun, han sugedun.

Herkules Boudha bezala jarririk erakusten zuten, bi zangarrak kuru-tzaturik.

Horrela pantheon erromanoa frango berritua zen, ez xoilki kanpoztan bainan ikurrez eta balioz.

Huna Jupiter: Erroman, Olinpoko errege, zeruko argiaren eta ximiztortzien nagusitzat zaukaten. Akitanian lan gehiago bazuen: iguzkiaren erabiltzea, haren gain; gerlarako arta guziak berdin; bainan halere ez zen gure aintzinekoentzat jainko handiena.

Mars-ek aldiz Italian baino arrakesta biziki gehiago bildu zuen: sekulako titulu andana eman zioten; ez zen gehiago Jupiter-en mutil.

Bainan, *De bello Gallico* bere liburuan (L. VI, ch. XVII, 1.) Zezarrek ohar bat arras zuzena badauka: *Deum maxime Mercurium colunt*, hots, mendealeko probintzietan Merkurio zela jainkorik ohoratuena. Egungo egunean toponomiak badauka oraino haren izena Girondan bezala Lapurdin (Kanbon) eta Kataluñan ere (Tumululus Mercurii). Sineskerien arabera, *Merkurio* horrek indutria eta negozioa erakutsi zeiezen gizoneri; bideak zaintzen zituen ixtri-

ERLISIONE PAGANOAK ESKUALDE HAUJETAN

puetarik eta ohoinetarik; bainan laborantza edo nekazaritza ere sustengatzen zuen, Rosmerta bere lagunarekin, eta laket omen zitzaion ohora zezaten mendien eta mendixken gainean.

* * *

Orai arte ez ditugu tokian tokiko jainko-jainkosa bakar zombait baizik aipatu, Erromanoekin zerbait ikusteko zuketuen heinean; bainan harri zaharrek borts dotzema segurik salatzen dauzkute hemen gaidikoetarik.

Baditake zombaitentzat aspergarri ditaken heien izen bitxien zerrenden aditzea. Halere iduritu zait nor edo nori jakingarri zitzaiokeela, eta abede-ka behar nituela moltzo bat bederen aipatu, nahiz izen gehieneri ez dakidan, aire-buruka ere, zer begitarte eman, ez eta ere zer kargu².

Huna bada:

Abellion (Sacaze-k agertua): ez jakin haren izenez bertzerik;

Aberri (Lizop-ek agertua): jeinu ez ezaguna,

Adarduna (Etienne) Apolon-en lerrokoa,

Aereda (Sacaze, p. 333) izen huts guretzat,

Ageio (Sacaze, p. 518): zombaiten arabera, ur beroen zaintzailea,

Aberbelste (Sacaze, p. 431) «aker beltza» den ala «harri beltza» dudan daude jakintsunak.

Alar, *Alardoss*, *Alardost* (Sacaze, pp. 353, 354) Iduriz hiru jainko ahaide, nun ez diren bakarraren hiru izen. Orroitz Aralar mendi-besangan galluru bat Alar deitzen dutela.

Amilamia (Barandiaran) Alaba-Salbaterrako jeinu maitagarri bat.

Ande (Sacaze, p. 128), jainkosa: ez ote den Andere-ren laburpena?

Anderexo (Sacaze, p. 464) ezin trenka jainkosa denetz ala emazte bat aurkitzen den harrian.

2 Huna jainko-jainkosa horien izenak nundik atera ditugun:

BARÁIBAR (Federico) Palabras alavesas (Vitoria, 1907), Museo incipiente (1912).

BARANDIARÁN (J. M.) Diccionario de Mitología vasca (1972).

BERTRAND (Antonio) Hispania Antiqua epigrafica.

ETIENNE (Robert) in Histoire de l'Aquitaine.

LAFÓN (René) Noms aquitains de divinités... dans les Inscriptions latines du Gers (B. S. A. du Gers, 1959).

LARREGUY (Bernard) Manuscrit de 1778.

LIZOP (Raymond) Les Comminges et les Couserants avant la domination romaine (1931).

MICHELENA (Luis) De onomastica aquitana (Pirineos, 1954).

SACAZE (Julien) Inscriptions antiques des Pyrénées (1892).

TARACENA (Blas) Excavaciones en Navarra (1947).

PIERRE LAFITTE

Andos-ilun (Etienne): Herkulesekin berdindua,
Arardo (Sacaze, p. 334), jainko izen bat menturaz gaizki irakurria, harria funditua izanez.

Arbe (Lafon), iduriz, bazka-lekuetako jeinu bat.

Arixo (Michelena), itxuren arabera, aritz-jainkoa, latinez «dativo»-an emana,

Arpenino, Sacaze-k mendi-jainkotzat hartua,

Asto-ilunn (Sacaze, p. 363) Askori bezala iluna zait jainko izen hori

Axo (Lafon) atxeman duten lekuaren arabera (Castelnau-Barbarens) ur beroetako jainko bat.

Baelisto (Baraibar) Araba Angustinako jeinu bat

Baeserte (Sacaze, p. 258): jainko horrek bere izenaren orroitzapena utzi dio *Besert* herriari. Basurde bat itxuratua baita aldarearen sahetsean, zonbaitek asmatu dute «Baeserte» ez ote zen «basurde» hitza bera guti edo aski desbistaturik. Ez da segurtamenik.

Baigorriz, *Baigorrise*, *Baigorix*, *Buaicorix* (Sacaze, p. 424 et sq.) maiz aipatua den jainko bat. Izenak badu euskal usain handia.

Baios (Sacaze) jainko ez ezaguna. Nork erran *Bai*-ek ez duen zerbait ikustekorik *Bai-gorriz*-enarekin?

Basce Andoss (Sacaze, p. 349). Iduri luke *Basce* hori *Basco*-ren eite baduela.

Beissirisse (Etienne), Jupiter-ekin berdindua.

Bocco Herauso, «Boucou» herrian atxemana (Sacaze, p. 254)

Borienno (Sacaze, p. 471), jeinu ez ezaguna.

Dahus (Etienne), Mars-ekin berdindua.

Edelate (Sacaze, p. 167) Comminge-ko jeinu bat, menditarra.

Ele, diotenaz, haurreri mintzatzan erakaslea, Erromako *Fabulinus*-en parekoa (Sacaze).

Erditze (Sacaze, p. 66) emazte haur-beharren laguntzalea, Erromako *Juno Lucina* bezala.

Erge (Sacaze, p. 500), ez ezaguna. Zonbaitek pentsu dute «elgeen» jainkoa zitakeela, baina ez da froga izpirik.

Gar (Sacaze, p. 336), mendi-jainko bat, Dianaren mailan emana.

Herauscorritsebe, Atharratzeko jeinu zaharra, orotan aipatua.

Herauso (Sacaze, p. 254): ez laiteke harritzeko hunek zerbait ahaidetasun balu Atharratzekoarekin; nahiz ez dakigun zer den *heraus* hitza, aketz, urdanga edo bertze zerbait.

Horolat (Etienne), Dianarekin lerrokatua, Oro lekuaren zain.

Idiatte (Sacaze, p. 326), ez jakin idiekin bazuenetz ikustekorik.

Ilix, *Ilixo Ilixon*, *Ilixor* (Sacaze, p. 391). Itxuren arabera, izen beraren lau forma. Zonbaiti gogoratzen diote latinezko *ilex*, *ilicis*.

Ilumber (Sacaze, p. 392) Hunek ere baduke iluntasun zerbait.

Ilun (Sacaze, 5-8, 356, 363) Comminge-ko jeinua. Batzuek uste dute gauaren jainkoa, hitza euskara izan dadin, ala latina (*illunis*, ilargirik gabea).

Ilurberrix (Sacaze, p. 463) Zerbait berri baduke, bainan zer?

Iluro (Sacaze, p. 292) izen hunek ez gaitu gehiago argitzen, nahiz hiri baten izen xaharra den.

Iscitt, *Iscitto* (Sacaze, p. 446) Barandiaran jaunari hitz horiek gogoratzen diozkate *Itxeto*, *Etxato*.

Ivilia (Antonio Bertrand, p. 14). Bizkaiko jainko bat, haurreri ibiltzen erakaslea menturaz, Erromako *Abeona* edo *Adeona* bezalaxe.

Lacubegi (Taracena, p. 107) Nafarroako jainko xahar bat.

Labe (Sacaze, p. 147) Comminge-ko jainko sendulari bat.

Leblunn (Etienne), Mars-ekin berdindua.

Lois (Larreguy) Ziburun, Bordagainen, Larreguy-k dionaz, bazen hirugarren mendean «Fanum Loisi» deitzen zuten jainkotegi bat: ez laiteke mirakulu Donibane-Lohizune izenak jainko xahar horren hatzaren ekartzea.

Leherenn (Etienne) jadanik aipatua dugu Mars-en dobladura gisa: bainan hartarik berex ere aurki ditake, eta folklorea nork daki ez dutenetz haren orroitzapena atxiki, *Heren suge* eta *Leberen suge* hitzetan, naiz *leberenn*-ek *leben* emaiten daukun gogorat eta *heren*-ek «hirukoitz», hots hiru burutako sugea. Gure xaharren buruan gauzak nahastuxe ditazke denboraren bortxaz.

Losa, *Loxa* (Taracena, p. 126) Lerate eta Arginaritzeko jeinu xahar bat.

Lurgor (Lizop) Auzkitarren jainkoa: itxuraz hitz osoki euskarazkoa.

Rosmerta (Etienne) Laborantzaren begirale guziz ohoratua.

Selatse (Barandiaran) Barbamin-eko harri batek dakarren jainko-izena.

Sirona (Etienne) Merkurio, Mars eta Herakles-en lerroan emana.

Sutigi (Etienne), Mars-en dobladura bat.

Toliaudoss (Etienne), Herkules-en dobladura bat.

Tulonio (Baraibar), Arabako jeinu bat.

Ulbelteso, Oyarzun Andriarriagako orroit-harriak dakarren jainko-izena.

Urtzi. Aimery Picaud-en arabera, XII-garren mendean Euskaldunek Jainkoa «Urcia» deitzen zuten. Zonbaitek uste dute *ortzegun* hitzak hazkaritzen duela Picaud-en errana, nahiz bakar-bakarra den. Ezen «Jovis dies»

emaiten diote gogora. Bainan Luis Michelenak ez du *ortzegun* ikusten *urtzi-egun* bezala, bai ordean (*b*)*ortz-egun* bezala, hots, «feria quinta»-ren parekoa, *bortz*-eko *b*-erori-ta. Alta *ortzirale* edo *ortzilare* hitzak ere ez bide du *urtzi*-rekin deus ikustekorik. Erromanoek *Orcus* hilen jainkotzat zaukaten eta gure «feria sexta» hilen eguntzat, latinez *orcina dies* edo *orcilaris dies*, guk «Purgatorietako arimen eguna» diogun bezala. Dena den, ez dugu Urtzirik aurkitzen ez harri zaharretan ez eta ere folklolean.

Use (Baraibar): Laguardiako eskualdean izen hori asko jainkorena zen, ez dakigularik zertako.

Ubarna (Baraibar), Cabrianako jainko bat.

Xuban (Sacaze, p. 315) Arbas-eko jeinu bat, ez ezaguna.

* * *

Lehen denbora hetako jendek erlisione frango arrunta zuten; beren jainkoen alderako amodiorik ez, edo biziki guti. Ez zitzaien burutik pasatzen ere jainkoak gizonen bihotzeri beha zaudezkela, ea noizbait maitatuko zituzten. Erlisioeak ez zeien maitatzerik eskatzen. Izaitekotz beldur izpi bat. Heien sineskerien arabera, jainkoek indar gaitza handiak bazituzten, bai ongirako, bai gaizkirako, eta beraz, ez ziten etsai, ez zitzaien huts egin behar.

Heiekilakoa trukada zen, merkatu hutsa. Gizonak jainkoari emaitza zerbait opaltzen, jainkoak ordainez bertze zerbait eman zezan. Hots, «orizu eta indazu!»

Jainkoari eskaintzen zitzaizkon batez ere hazkurriak: lurrerat ixurtzen ziren esnea, olio, arnoa edo bertze edari batzu; aldare gainean ezartzen fruitu eta opilak. Bainan abereak ziren gain-gaineko opariak: zikiro, urde, idi. Hil behar ziren. Opari gaiak ez zuen akatsik behar: Jupiter-entzat idi xuria baitezpadakoa zen, Orkus-entzat zikiro beltza. Ehaitea lur-mono baten gainean egiten zuten. Aberea aitzoz (ganibetaz) edo aizkoraz hil-eta, gantza eta ezurak aldarean erretzen zituzten, haragia aldiz gizonek jateko atxikitzen: gisa hortan beren jainkoekin bazuketen partaliertasun itxura zerbait.

Sakrifizio hori, otoitz batek laguntzen ohi zuen. Otoitza hargatik ez zen jainkoaren ganako bihotz-altxatze bat, tratu hertsia bat baizik. Ez zuten nehork uste jainko batek deus ere eman zezaken urrurik edo fagore hutsez. Ez bazuten galdatua ardiesten, gaizkika hasten zitzaizkion jainkoari, bere hitza jan zuela, ez zela xuxenki ibiltzen, eta holako.

Hots, erlisione hotza zuten, kar eta fede gutikoa. Esperantza ere laburra: hil-ondoko biziaren segurtamenik ez, haren beldur eta halere ez etsitu nahi.

* * *

Bizkitartean, orduantxe erlisione-aldatze batzu egin baitziren munduan, Akitaniako orroit-harriek erakusten daukute, berritzapen horiek, hein batean segurik, hunaradino sartu zirela. Ekaldetik bai soldado erromanoek, bai heien ondotik etorri tratulantek hunat ekarri zituzten sineste berri mixteriozko batzu, arimak sendimenduz hobeki asetzen zituztenak.

Hiri handietan (eta hasteko Bordelen) agertu ziren lehenik Ekaldeko fede horiek. Novempopulania-n, Lectoure herriak egin zeien ongi-etorririk nasaiena. Ez dugu ahanzi behar, toki hortan eta ingurumenetan, arrotz hainitz bazela kokaturik, armaderi jarraikiak, gehienak grekotu edo helenizatuak. (Artetik erran dezadan, zorbait hitz greko euskaran sartu balinbaizaizkigu, ez dugu beraz zeren harri!)

Zer nahi den, *Cybele* Ama handiaren erlisionea zen gehienik hedatu. Haren hatzak aurkitu dituzte Comminge-n, Labrouquère-n, Bordelen, bainan guziz Lectoure-n. *Cybele*-n hogoi-ta-bortz orroit-harri bildu baitituzte, hogoi hiri hortakoak dira.

Harri zizelatu horiek atxiki dituzten itxurek erakusten dute nola bururen buru egiten ziren *tauroboletako* zeremoniak: prosesionea, ahariaren edo zezenaren hiltzea, kide berriaren odolezko bataioa (batzutan haren irentzea Attis-en orroitzapenetan, nahiz Attis horren den mendreneko aipurik ez den ikusten gure eskualdetan, nehun 'ere).

Bir-sortze horiek noiz egin izan diren zehazki markatua da han-hemenka: adibidez, batto 176-ko urriaren 18-an; bertze bat 239-ko martxoaren 24-ean; hirugarren bat 241-ko abendoaren 8-an.

Apez gehienak esklabo-ohiak ziren; *Cybelen* debotak hauteman ditazke aberatsetan bezala xehetan, bainan emaztetan gizonetan baino gehiago.

Ama Handiari ekartzen zioten kar samur sakon bat: pentsu zuten zeremonien medioz jainkostatzen zirela eta betiko bizi dohatsu bati apailatzen: uste gabetarik ez ote ziren kristautzeko bidean?

Cybele-k bezain bertze arrakesta ez ukanik ere, Akitanian Egiptoko jainko-jeinuek egin zuten beren agertzea: *Isis*, *Harpokrates*, *Serapis*, *Ammon* aipatuak dira orroit-harrietan. Adoratzaille dituzte batez ere jende xehe behardunak: hauiek igurikatzen dituzte beren jainkoarekilako betiko eztaiak, heriotzea garraitu ondoan. Inguruetakoa erlisione arruntetarik haratago, bilatzen dute bihotzeko bakea eta salbamendu gose dira.

Mithra-ren erlisionea Persa-tik hedatu zen Inperadore erromanoen lur guzietarat, eta harritzekoa izanen zen, ez baginu haren hatzik aurkitu eskualde hautako orroit-harrietan. Bizkitartean badelakoaz bertzerik, ezin erran. Alta hori ere sendimendutsua zen eta kartsua.

* * *

Hunaraino aipatu xehetasunez haizu bezaizkit bi ohar, nehork ez de-
zaien eman duten baino garrantzia handiagorik.

Orroit-harri moltxo batetarik atera ditugu. Bainan ohar gaiten harri
horiek ez dauzkutela bixtarat ekartzen dedikatzaile sinestedun bakar batzuen
aitormenak baizik. Ez daukute baitezpada aurkezten jende gehienen ikusteko
moldea. Bazitazken milaka dedikatzaile horiek baino jende arruntago eta
sordeisagoak; bai eta ere (zertako ez?) bihotz beratzaigo eta goragokoak.

Nunbait irakurri dut —ez denetz Vinson-en baitan?— Lapurdiko gure as-
paldiko asabek ez zutela erlisione tuntik, ez zutela jainkorik bazela on-hartzen
ere. Horren froga gure hizkuntzak berak emaiten omen du. Gipuzkoan «ezer»
erraiten dutelarik, guk «deus» erraiten dugu. Beraz gure asabek erromanoen
«deus» hitza mesprezio edo erdainuzkotzat hartu zuten «ezer-ez» adi-arazteko.
Erranen dautzuet ez naizela den gutienik aburu hortakoa. Lapurdin *deus* hitza
ez da ezezko hutsa. Adibidez, Uztariztar batek aterako dio saltsero bati:
«otoi, ez sar zure sudurra gure *deusetan*», eta orroit naiz Bidarten aditurik:
«Gizon hori hanbat xirotu da, non behar izan baititu bere *deus* guziak
saldu!» *Deus* hitza ez dakit nundik datorken, bainan berez ez da ezezkoa.
Horrek ez du frogatzen ez zela gure aintzinekoetan sinesgogorrik edo kar-
talazo arruntik.

Arruntak arruntei, alderantziz Aragoitik hunateko mugan kausitu dute
hil-hobi harri bat hunkigarri-xamarra. Erakusten du bazirela, han hemenka
bederen, arima batzu sakrifizio handienen egiteko aiher (kapaz) zirenak.
Huna Kalahorrako gizon batek bere hobiaren gainean ezar-arazitako hitzak.
Latinetik³ itzultzen ditugu:

«Quintus Sertorius-en etxe-jainkoeri, ni Brebyrius Kalahorrakoak ene
burua eman deiet, bekatu zelakoan, ezin-hilezko jainkoen dohain guziak
zauzkana hilez geroz, bizirik egon nindadin. Agur, hitz hauk irakurtzen ditu-
tzun iragailea. Eta ikas ene etsenplutik leial egoiten. Leialtasuna, beren gor-
putzaz gabetu hileri ere laket zaie.»

* * *

Aipatu ditugun orroit-harri paganoak bigarren eta hirugarren mende-
koak dira, gutiz gehienak: geroztikako biziki guti. Nausi erromanoen larderia
ttipitu ote zen luzara, ala heien erlisionea ahuldu? Biak naski. Ez haatik
uste izan kristautasuna jarria zela gure lurretan. Sartua, bai, han-hemenka,
mugetan eta hiri tarro zombaitetan, bainan oraino ez hanbat hedatua.

3 Dijs Manibus Quinti Sertorij Me Brebycius Calagarritan(us) Devovi arbitratu
Religionem esse eo subiato qui omnia cum dijs immortalibus communia habebat me inco-
lumem retinere animum Vale viator qui haec legis et meo disce exemplo fidem servare
Ipsa fides etiam mortuis placet corpore humano exutis.

Folkloreko ipuiek emaiten dute aditzerat memento batez —bainan noiz?— elgarren auzo bizi izan zirela bi euskaldun mota: kristauak eta jentilak, hauk paganoak. Hauien sineskeriak guti edo aski nahasi zitazken giristino sinestekin. Nork erran zonbatetaraino?

Ohargarri da gure ipuiek ez daukutela orroit-harrietako jainko edo jeinu bakar bat aipatzen, nun *Leberenn* ez dugun *Heren*-sugearekin batzen.

Pio Barojak aurkeztu ditu askotan *Tor* eta *Urtzi* Euskaldun asabek adoratu jainko pagano kondu. Erran dezagun berak asmatu gauza bat dela. Ez harrietan ez ipuietan ez dira bi izen horiek agertzen. Gorago orroit-arazi bezala, Aimery Picaud-ek, ba, *Urcia* aipatu du, bainan ez du jainko paganotzat eman.

Folklorean izaite asko agertzen zaizkigu bitxi baino bitxiagoak: basajaun, bas-andere, lamina, maide, inguma, eta abar. Bainan, ene iduriko, izaite horiek ez dira jainko, eta erlisioneaz kanpokoak dira: onets ala gaitzes ditazke, erlisionerik hunkitu gabe.

Adibidez, San Agostin-ek *De Civitate Dei* bere liburuan ez dio gizontsoari izaiterik ukatzen, ez eta ere izarrerri gure gainerako indarrak. Egungo egunean girixtino zintzo batzuek jogako anatomia egiazat daukate, prana eta oro. Bertze zonbaitek «aireko xatetan» (platillo volante) sineste osoa badute edo berdin «elurretako gizona» baitan. On-har bezate, nahi dutenek, nunbait badirela Tartalo begi-bakotzak edo laminak: ez dut ikusten zer makur duken hortaz erlisioneak.

Nor edo nor adituko duzue ikara batekin mintzatzen Euskaldunen animismoaz eta totemismoaz. Niri, ala fe, ez dautet ez batek ez bertzeak lazdu-rarik emaiten.

Hasteko ez dut euskal ipuinetan totemismo aztarnarik kausitu: segur abere harrigarri hainitz aipu dira ixtorio-mixterio horietan (aratxe gorri; behor zuri; ardi, ahuntz beltz; suge eta bertze); bainan behin ere ez da erraiten gizonik badela heien odolakorik. Aldiz eboluzionista batzuek diotenean gizakunde guzia ziminoen aitonetarik sortua dela, banago ez ote diren horiek... zinezko totemistak!

Animismoa ere bizi da uste ez den lekuan. Hasarre bulta batean bere kotxeari zer nahi erranka eta ostikoka ari zaion autozaina animista balinbada, zer pentsa filosofo batzuek konzientzia zerbait sumatzen dutelarik aberetan, landaretan bai eta harri koxkorretan ere?

Hala-hala aipa gure zaharrekin ikatz mokor baten *bertutea* ala oraiko jakintsun batekin haren *radioaktibitate*a, ez zait iduri munta handirik badiuen erlisioneari buruz!

Euskal-ipuietan jainko-manera zerbait duen izaite bakarra da mendietako Mari, orroit-harriek ezagutzen ez dutena. Haren izena hamalagarren

PIERRE LAFITTE

mendean baizik ez da irakurtzen lehen aldikotz. Arkaitz bazterretan, hedoi- artetik, harpe-ziloetan gaindi, ez da ezagut-errex, zazpi itxura bederen hartzen dituela. Bainan zuzenari atxikia da, manamenduak egin ditu gizonen onetan, gaizkia gaztigatzen du, ongia saristatzen mundu huntan berean, opariak zor zaizko, haren delako «ez-ari emaita» latinez izenda ginezake *justitia immanens compensatoria*... Baditake zonbait pondutan, izen bera zutelakotz, Andredena Maria eta biak ahaidetu dituzten... Orok irakurri ditzue don Joxemiel-ek jeinu hortaz idatzi xehetasun jostagarriak ⁴. Ez ditut hemen erre-pikatuko, ez baitut uste erlisione hortarat lerratzeko irriskutan giren.

Bertze hitzlari jakintsunago batzuek erranen dautzue seguraz ere, nun dituzken gure fedea gaurko egunean bere egiatzko makur eta hondabideak ⁵.

Pierre LAFITTE

⁴ *Diccionario ilustrado de Mitología vasca*, pp. 157-168; 272-275; 279-302; 314-319; 336-345; 366-380; 423-430.

⁵ Hilzaldi hau Aralar-eko biltzar batean emana 1973-ko Bazko biharamunagoan.